

Zer da TREBA Gurasoak?

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak gurasoen eskura jarri duen doako prestakuntza-ekimena da, lurraldeko udaletako haur, nerabe eta gazteen sustapen-zerbitzuen laguntzarekin garatu duena. Programa honek haurren eta nerabeen bizi-kalitatea eta aukerak hobetu nahi ditu, gurasoak hezkuntza-gaitasunetan trebatuz.

Norentzat da?

Prestatu ditugun gaien inguruan kezka, interesa edo arazoa duten guraso eta hezkuntza-eragileentzat (guraso-elkarte, hezitzaile...).

Hitzaldi eta tailerren katalogoa

Programa honen bitartez, gurasoei haurren eta nerabeen heziketa-prozesuan lagunduko dieten hitzaldiak eta tailerrak antolatu ahal izango dira udaletan hainbat gairi buruz. Horretarako, gurasotasun positiboa ardatz duen katalogo bat osatu dugu.




● Nerea Mendizabal




● Nerea Mendizabal



● Donna Apellaniz eta Leyre Cano



● Estibaliz Ansotegi



● Leyre Cano



● Nerea Mendizabal



● Nerea Mendizabal



● Leyre Cano



● Eider Goiburu




● Eider Goiburu



● Rakel Gamito



● Ortzadar




● Ortzadar



● Eider Goiburu



● Ortzadar



● Gurutze Gorria

Gai bakoitza bi formatutan eskainiko da, hitzaldia eta tailerra.

1. Hitzaldiak. Sentsibilizazio eta hausnarketarako. Inspirazio-iturri izan nahi dute, eta seme-alabekin egiteko moduari buruzko gako txikiak emango dira (1,5 orduko saioak).

2. Tailerrak. Gaitasunak lantzeko oinarrizko ezagutzak. Teoria eta praktika uztartuz, arazoak konpontzeari emango zaio garrantzia, trebakuntzari (guztira 4 ordu, 2 saiotan).

- Gehienetan, prestakuntza-jardueren hartzaileak bereizi egin dira: batetik, haurren gurasoak, eta bestetik, nerabeenak
- Euskaraz edo gaztelaniaz egingo dira.
- Aurrez aurrekoak izango dira.
- Publiko orokorarentzat izan behar dute.
- Saio guztiak doan izango dira.
- Prestakuntza-jarduerak gauzatu ahal izateko, gutxienez 10 pertsonak eman beharko dute izena aurrez.

Nola funtzionatzen du?

Guraso edo bestelako hezkuntza-eragile izanik, zuen udalerrian programa honetako gai jakin bati buruz hitzaldi edo tailer bat antolatzea nahi baduzue, honako pauso hauek eman behar dituzue:

- Aukeratu gaia eta formatua (hitzaldi edo tailerra) katalogotik. Honako hauek ere pentsa itzazue: haurren gurasoentzat edo nerabeen gurasoentzat (edo bientzat) izango den, zein hizkuntzatan egingo den, gutxi gorabeherako data, etab...
- Jarri harremanetan zuen udaleko haur, nerabe eta gazteen sustapeneko teknikariarekin eta egiozue eskaera.

Ikus udaletako haur, nerabe eta gazteen sustapen teknikarien helbideak

- Udalean eskaera aurkezteko epea: **Urriak 5.**
- Hortik aurrera ere eskaerak egin ahalko dituzue, baina kasu horretan unean uneko baliabide ekonomikoen eta trebatzaileen agendaren arabera esleituko dira jarduerak.
- Udalak zuen eskaera baloratu eta, onesten badu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzari bidaliko dio. Azkenik, honek erabakiko du ikasturtean zehar lurraldean zer jarduera programatuko diren, eskari guztiak aztertu ondoren.

Informazio gehiago hemen